


MarraziOak

16



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
GIPUZKOA



2024ko ekainaren 24tik 28ra
Undermount-en (Igeldo, Donostia)
Galtzagorri elkarte
943 471 487

MARRAZIOAK XVI

Mozorroen egia

“Eman maskara bat eta egia esango dizuet” (O. Wilde)

HARKAITZ CANO eta IGNASI BLANCH

ZER:

Aurtengoan mozorroen sinbologian barneratuko gara Harkaitz Cano eta Ignasi Blanchen gidaritzapean.

Kultura guztietan errepikatzen da mozorrotzeko joera. Jatorrian, antzinako jainkoak eta mitoak inbokatzea, euriari deitzea edo zomorroak uztatik uxatzea jomugan izan zuen. Euskaraz, bereziki nabarmena da azken lotura hau, mozorro/zomorro hitzak bat eta berbera diren heinean. Basileako inauteriak, Galiziako *peliqueiroak*, Altsasuko *momotxorroak*... Hamaika dira sustrai paganoetan jatorria duten eta gaur egunera arte iritsi diren adibideak. Baina zeintzuk dira XXI. mendean uxatu nahi ditugun “zomorroak”?

Tradizioaz harago, mozorrotzeak ez dakar soilik nortasunaren eraldatze bat, baizik eta “entitate aldaketa” bat. Entitate aldaketa horrek, antzinako errituen transmisioa eta berreskuratzea dakartza, baina ez hori bakarrik: beldurrak eta konplexuak gainditu eta etorkizunera proiektatzeko modua ere badira.

Gauzak horrela, aurtengo MARRAZIOAK tailerrean mozorroen bidez pertsonaiak sortu eta sortutako pertsonaia horiek aldeaz edo moldez gurekin duten zerikusiaz hausnartzea da asmoa.

NOLA:

Ilustratzaileei zuzendutako tailer honen helburua ariketa praktikoan bidez norberaren pertsonaia katalogoa handitu eta anitzagoa bihurtzea izango da, ahal dela, Oscar Wilden esaldi ezaguna geure eginez: *“Eman iezadazue maskara bat eta egia esango dizuet”*.

Horretarako, Ignasi Blanch ilustratzaileak eta Harkaitz Cano idazleak Natali Fortier, Tim Burton, Yorgos Lanthimos, Cindy Sherman, Pierre et Gilles, Sergio Mora, Emmanuelle Houdart eta beste hainbaten lanak izango dituzte bidelagun.

IRAKASLEAK:

Harkaitz Cano

Ignasi Blanch

NOIZ ETA NON:

2024ko ekainaren 24tik 28ra, [Undermount](#)-en (Aita Orkolaga pasealekua 46, Igeldo, 20008, Donostia). Donostiako autobusen 16-Igeldo lineak parean du geltokia. Linea horretako autobusak Donostiako Boulevard zumarditik abiatzen dira.

Ordutegi jarraitua izango du tailerrak: **10:00etatik 18:00etara**, bazkaltzeko ordubeteko atsedenaldiarekin. Parte-hartzaileek beren bazkaria eraman dezakete, bertan bazkaltzeko aukera dago eta.

Asistentzia derrigorrezkoa da: parte-hartzaileek tailerraren saio guztietara etortzeko gai izan eta horretarako konpromisoa hartu behar dute.

NORENTZAT:

Gehienez 12 irudigilek hartuko dute parte.

Parte hartzeko baldintza orokorrak:

- Euskaraz ulertzeko gai izatea ezinbestekoa da.
- Galtzagorri elkarteko bazkide izatea baloratuko da.
- Euskal Irudigileak (APIE-EIEP) Elkarteko bazkide izatea ere kontuan izango da.
- Parte-hartzaileek ez dute zertan argitaratutako lanik izan behar.

ESKAINITZA:

Topaketa hauetan **formazioa doan** eskainiko zaie irakasleek aukeratzen dituzten 12 lagunei. Guztira, 35 orduko tailer praktikoa egiteko beka bana eskuratuko dute.

IZEN-EMATEA:

Ilustratzaile bakoitzak bere dosierra edo bere 10 irudiz osatutako lagina aurkeztu beharko du, bere estiloa, estetika eta ildoak irudikatzen dituztenak.

Horrez gain, honako dokumentazioa igorri beharko du:

- Curriculumuma
- NANren kopia bat
- Posta elektronikoaren helbidea
- Telefono zenbakia

Dokumentazioa wetransfer bidez bidali beharko du

administrazioa@ibbygaltzagorri.eus helbidera.

EPEAK:

Eskaerak aurkezteko azken eguna: **2024ko maiatzaren 17a** izango da.

Aukeratutakoei 2024ko maiatzaren 27ko astean erantzungo zaie.

ANTOLATZAILEAK:

Galtzagorri elkarte
Gipuzkoako Foru Aldundia

INFORMAZIOA ETA ARGIBIDEAK:

943 471 487

www.ibbygaltzagorri.eus / administrazioa@ibbygaltzagorri.eus